

FUNTZIONAMENDU-ARAUAK Ospitaleratze-unitatea – EKTOPIKOAK

Guri abisatzeko, ERABILI GELAKO EDO BAINUGELAKO TXIRRINA GURE ZERBITZUAN ZAUDEN BITARTEAN BETE BEHARREKO ARAUAK

- Arreta ematen dizun zerbitzuari ez dagokion erizaintza-unitate batean ospitaleratuta zaude. Zutaz arduratzen den medikua egunero etorriko zaizu bisita egitera.
- Behar baduzu, eskatu guri laguntza.
- Egunero, pijama bat emango dizugu. Zure garbitasunerako, gelan bainugela bat duzu. Gelan dutxarik ez baduzu, erizainak erakutsiko dizu non dagoen.
- Geletako komunak pazienteentzat dira. Laguntzaileentzako komunak igogailuak dauden tokian daude.
- Gogoratu ospitalea tabakorik gabeko eremua dela.
- Ospitalean ISILIK ibili.
- Pazienteentzako segurtasuna dela medio, ospitaleratzeoko unitateetan ezin dira sartu landare naturalak edota artifizialak (plastiko, kartoi eta abarrezkoak), lurdunak edo lurgabeak.

MEDIKUAREN BISITA / SENITARTEKOENTZAKO INFORMAZIOA



- Egunero, igandeetan ezik, goizeko txandan (8:00etatik 15:00etara).
- Medikua bisita egiten ari denean, pazientearen senitartekoek unitatetik kanpo itxaron beharko dute, igogailuen atarian.
- Bisitan emango dizu medikuak egoeraren berri.

OTORDUAK

BISITARIAK

Unitatearen arabera:



9:00 Gosaria
13:00 Bazkaria
17:00 Askaria
20:00 Afaria


- 14:00etatik 21:00etara.
- Gehienez, 2 pertsona pazienteko. Nahi baduzu, senitarteko bat egon daiteke zurekin gau eta egun.

BESTE DATU INTERESGARRI BATZUK



Kerik gabeko erakunde
sanitarioen Euskal Sania
Nahi bezala de organizacionen
sanitarias libre de humo

Kerik gabeko erakunde batean zaude. Hemen ezin da tabakorik erre edota zigarro elektronikorik erabili (baita aparkaleku, lorategi eta kaleetan ere).



Pazienteak edo senitartekoek enpresarako edo familia medikuarentzako sarrera-**frogagiria** behar badute, Gaixoak Onartzeko Zerbitzuan (beheko solairua) jasoko dute.



TXAGORRITXU OSPITALEKO TELEFONO ZENBAKIA: 945-007000

8:00etatik 22:00etara, logelan deiak jaso daitezke, telefono honetara deituz: 945000882.

Kanpora deitzeko, logelatik, telebistako txartelaren bidez ere deitu dezakezu.



TELEBISTA ospitaleaz kanpoko zerbitzua da, eta txipdun txartelarekin eta aurikularrekin funtzionatzen du. Atariko makinan eros daitezke txartelak eta aurikularrak (norberarenak ere erabil daitezke). Txartelak duen diru-kopurua ez da itzuliko, baina ez dauka iraungintze-datarik, hortaz berriro erabil daiteke. Matxuraren bat gertatu edo behar izanez gero, deitu 1422 edo 636 46 59 37 telefonora.

Telebistak eta telefonoak sistema berari konektatuta daude, beraz, ezin dira telebistak deskonektatu, bestela telefono-zerbitzua ere ezin baita erabili.

KAFETEGIA

Ordutegia: 8:00etatik 22:00etara.

Erdisotoan dago.

Zenbait solairutako igogailuen atarietan badaude kafe- eta freskagarri-makinak.



OSPITALE-ALTA. Ahal izanez gero, bezperan abisatuko zaitugu.

Alta ematen den egunean senitartekoren bat bertaratzea komeni da.

Altaren egunean komenigarria da gela uztea txosten-medikoa jaso ostean, behar duten pazienteentzat ohea prestatzeko.

Laguntza erlijiosa eta espirituala:

- Ospitaleak zerbitzu erlijioso katolikoa du Kapean (1. solairuan). Harrera erlijiosoaren ordutegia: egunero 8:30etik 20:30era. Mezen ordutegia: Igande eta jaiegunetan 11:00etan.

- Beste erlijio batzuetako pazienteek eta senideek laguntza eskatu diezaioke euren arimako maisuari.



PAZIENTEAREN ZAKO ETA ERABILTZAILEAREN ZAKO ARRETA ZERBITZUA (PEAZ). Zerbitzu horren beharra izanez gero, Unitateko gainbegiralearen bidez eska dezakezu. Ordutegia:- Asteleheneetik ostiralera, 8:00etatik 15:00etara.